

ZARAUZKO

BALEA



ZARAUZKO
BALEA

Argitalpen honek AUSPOA LIBURUTEGIaren baimena du.
Zarauzko Udalak bere esker ona adierazten die Jose Mari Iriondo
eta Pello Esnali.

L.G.: D-110-2024

ZARAUZKO BALEA

(1878) Zarautz'ko balearenak

Antonio Zavalaren *Arrantzaleen bizitza*
bertso-liburuko kapituluaren transkripzioa

Hitzaurrea: Xabier Alberdi Lonbide

ZARAUZKO UDALA
SANZ ENEA LIBURUTEGIA
2023

AURKIBIDEA

Hitzaurrea	9
(1878) Zarautz'ko balearenak	53

HITZAURREA

Xabier Alberdi Lonbide

45 urte luze pasatuak dira dagoeneko Antonio Zavalaren *Arrantzaleen Bizitza* liburua 1978an argitaratu zenetik. Auspoa bildumako 133. aleak arrantzarekin eta itsas gertakariekin zerikusia duten hainbat bertso sorta biltzen ditu, besteak beste: 1854ko Donostiako balearenak, 1901eko Oriokoaren bi sorta, 1878ko galernarenak, 1905eko Zarauzko bikario eta meteorologo famatua zen Orkalaga jaunarenak, eta abar. Dena den, liburuaren atal nagusia *Zarautz'ko Balearenak* izenekoa da, 1878an harrapatutako balearen bertsoak eta gertakari horri buruz Zavalak egindako ikerketaren emaitzak biltzen dituena. Balearen harrapaketaren lehen mendeurrena zela eta Zarauzko Udala izan zen argitalpen hori sustatu zuena. Begira zer dioen Zavalak liburuaren hitzaurrean: “...*Eskerrak ematen dizkiogu Zarautz'ko Erriko Etxeari, zarautztarrak azken balea arrapaturik aurten eun urte zirala-ta liburu au argitaratzeko egin digun laguntzagatik...*” (Zavala, 1978, 10 orr.).

Eskertza horrek ederki adierazten du zein izan zen udal sustapen horren asmoa, balea hori, gertariarren edo beste herrietako arrantzaleen parte

hartzearekin bazen ere, zarauztarrek harrapatu zutela aldarrikatzea, alegia. Mugikorrik gabe-ko garai hartan etxeko nagusiek kontatutako “ipuiyak” eta “gertaerak” izaten ziren maiz gure haurtzaroko iluntzeetako lotara aurreko aisialdiaren muina. “Benetakoak” zirenez, nahiago genituen “gertaerak” eta haien artean gogokoenetako “gure” balearena zen. Ni artean mutil koskorra nintzen baina bizi-bizirik ditut oraindik Zarauzko balearen mendeurreneko ospakizunak, etxean entzundako “gertaera” haien egiazkotasuna berresten zituztenak. Batez ere, Musika Plazan egindako ospakizunak ditut gogoan: Imanol Urbietaren musika eskolako txistulari bandaren kalejira, kioskoan Lizaso eta Etxeberria bertsolarien saioa eta, batez ere, balearen irudia zeraman karroza eta haren gaineko parrilan erretako sardina-jana.

Orduko prentsak beste hainbat ospakizun aipatzen ditu. Larunbata suertatu zen otsailaren 11a (balearen harrapaketa eguna). Goizean txistularien diana eta buruhandi eta erraldoiak; eguerdian udaletxean osoko bilkura berezia eta ordubi eta erdietan (Roke Etxabek baleari arpoia sartu zion unean) herriko eliza guztietako kanpaien joaldia; arratsaldean Antoniano zine-*man Moby Dick* filmaren emanaldia, Sanz Enean

herriko ikastetxeetako haurren arteko margolan-lehiaketaren sari-banaketa eta margolanen erakusketaren irekiera, eta Iñaki Linazasororen hitzaldia; eta arratsean Musika Plazan berbena. Hurrengo egunean, otsailaren 12an, goizean berri ere txistularien diana eta lehen aipatutako Musika Plazako kalejira, bertsolariak eta karroza; eguerdian hildako arrantzale zaharren aldeko meza eta bazkari herrikoia La Perla hotelean; arratsaldean, haur-jolasak Frontoi-Zineman; eta arratsean berbena Musika Plazan. Ospakizun horietan guztietan ez da getiarrrik ageri eta, dirudienez, hauek ere berdin egin zuten zarauztarrekin. Getariako Udalak otsailaren 9an burutu zituen ospakizunak: Udal aretoan kokaturiko balea-arrantzari buruzko erakusketaren inaugurazioa eta Iñaki Linazasororen hitzaldia. Ekitaldietara Gobernadore Zibila, Foru Aldundiko presidentea, Marinako komandantea eta Donostiako alkatea (Zarauzkoa ez) gonbidatu zituzten. Badirudi, beraz, 1978an, balea harrapatu zutenik ehun urte igaro arren, oraindik pil-pilean jarraitzen zutela getiarrren eta zarauztarren arteko liskarrek...

Liburuaren garrantzi historikoa

Arrantzaleen Bizitza liburua argitaratzea izan zen, dudarik gabe, Zarauzko balearen “bentako” historia behin-behingo z finkatzeko bertako Udalak bultzatu zuen ekimen nagusia. Argitalpen hori, gainera, erabat ezohikoa zen egoera politiko batean burutu zen. Francoren heriotzak ez zuen bat-batean diktaduraren amaiera ekarri. Hark izendatutako Gobernuko Presidenteak, Arias Navarrok, zazpi hilabete pasa jarraitu zuen agintean, 1976ko uztailaren lehen dimititu ondoren Adolfo Suárez-ek ordezkatu zuen arte. Azken horren agintaldian “Ley de Reforma Política” izeneko legea onartu eta abenduaren 15eko erreferendumean berretsia izan zen. Lege horrek Frankismoaren egituraketa politikoaren suntsipena ekarri zuen eta, ondorioz, alderdi politikoak legeztatu egin zituzten. Ikurrina bera ere 1977ko urtarrilaren 19an izan zen legeztatua. Agintean zeuden askok ez zituzten aldaketa horiek onartu eta dimititu egin zuten. Zarautzen ere hori bera gertatu zen eta azken udalbatza frankistak urtarrilaren 22an iragarri zuten dimisioa. Zarauzko Guraso Elkarteak osatutako ordezkari bat jarri zen agintean, Imanol Murua alkatea buru zuela, eta horrela hasi zen gure herrian Estatuko erakunde mailan ematen ari zen “Trantsizioa”.

Horretarako euskararen erabilera, euskal ikurak, erakunde politikoak eta elkarte zibilak legeztazeari ekin zion udalbatza berriak. Ezohiko egoera horrek luze jo zuen, Espainiako Konstituzioa 1978ko abenduaren 6ko erreferendumaren ondoren onetsia izan zen arren, lehen udal hauteskunde demokratikoak 1979ko apirilaren 3ra arte ez baitziren egin.

Testuinguru korapilatsu eta ezegonkor horretan suertatu zen, beraz, 1978ko otsailean Zarauzko balearen harrapaketa lehene mendeurrena eta *Arrantzaleen Bizitza* liburuaren argitalpena. Garai hartan bizi ziren gatazka eta zatiketa soken adierazle ederra dugu, gainera, liburu hau. Izan ere, euskara batuaren erabilera 1968ko Arantzazuko batzarrean onartua izan zen arren, Frankismoaren garai beltzenean, diktaduraren zirrikituez baliatuz, hamarkada luzez euskaraz idazten eta argitaratzen jardun zuten zenbait ez zeuden ados. Horien artean Zarauzko herriarekin lotura estua izan zuten Iñaki Eizmendi “Basarri” eta Jose de Artetxe aipatu behar ditugu. Antonio Zavala ere azken hauen ildokoa zen eta horren ondorioz esku artean dabilkigun liburu hau ez zen euskara batuan idatzia izan. Dena dela, Antonio Zavala, garai hartako euskal bertsolaritzari buruzko ikerlarietan nagusia zen,

1962az geroztik bertso zaharrak eta antzinako bertsolarien gorabeherak ikertzen eta Auspoa bilduman argitaratzen ari zena. Ez da ba harritzekoa Zarauzko balearen bertsoen inguruko ikerlana egitea eta argitaratzea Udalak Antonio Zavalari eskatu izana.

Batuan idatzia izan ez arren, liburuak Zarauzko literaturaren historian badu bere garrantzia. Izan ere, litekeena da Francoren diktaduraren ondoren, Trantsizio garaian Udalak sustaturiko lehen euskal liburua izatea, edo hala ez balitz, lehengotarikoa izatea behintzat. Hainbeste urteren buruan, argitalpen hori eta Zarauzko balearen harrapaketa mendeurrena Trantsizio garai hartan ematen ari ziren gertakarien artean, bigarren edo hirugarren mailakoen artean sailka genitzake orain. Baina berehala ikusiko dugunez, orduko herritarrek eta udal agintariek balearen inguruko gertakariak eta, orokorrean, itsas historia eta ondarea gure izaeraren eta kulturaren atal garrantzitsutzat zituzten, 1876an Foruak ezabatu zituztenetik gutxietsiak eta Francoren diktadura garaian zanpatuak izan zirenak. Beraz, balearen inguruko ondarearen balioa azpimarratzea, euskal izaeraren eta kulturaren berreskuratze prozesu ikaragarriaren barneko pauso bat bezala ikusten zuten eta

horregatik antolatu zuten lehen aipatu dugun ekintza mordoa.

Esandakoaren lekuko, balearen mendeurrenak zeresan aipagarria izan zuen Trantsizio garaian Zarautzen eman zen erakundetze prozesuaren baitan. 1978ko otsailaren 11ko, hau da, balearen mendeurren eguneko, udalbatzaren osoko bilkura bereziak gai bakar bat jorratu zuen: Zarauzko jatorrizko armariaren berreskurapena, udalbatza osatzen zuten ordezkari guztiek aho batez onartu zutena. Jatorrizko armariaren irudikapen zaharrenak, 1455ekoa denak, bi atal nagusi ditu: goian Gaztela eta Leon erresumen ikurrak diren gaztelua eta lehoia, lau zatitan, bakoitza bi aldiz txandakatuak; eta behean ur gainean dagoen balea. Balea hori, 1237an hiribildu izendapena eskuratu ahal izateko, garai hartako zarauztarrek esku artean zuten baliabide ekonomiko nagusienaren ikurra zen.

Baina mendeek aurrera egin ahala, jatorriz Ganboa abizena zuten eta gerora Zarauz deitura hartu zuten leinukoen jauntxokeria bortitzaren ondorioz, leinu horren ikur ziren bihotz itxurako hiru panelek hartu zuten balearen tokia. Aldaketa horrek zerikusi handia du leinu horretakoek

“Zarautz baino lehen Zarauz” goiburua eta “Zarauzko Jauna” deitura erabiliaz lortu nahi zituzten helburuekin. Aurrerantzean armarrarian balea izan zenaren oroitzapena bera ere galdu eta Zarauz leinuaren jauntxokeriazko ikurra erabiltzeari ekin zioten zarauztarrek. Francoren diktadura garaiko udal agintariak, noski, ez zuten egoera inolaz ere berrikusi eta ez zuten jatorrizko armarraria ofizialki inoiz onartu. Armarrariaren aldaketaren atzean zegoen jauntxokeriaren eta autoritate printzipioaren babesle nagusienak izanik, agian, armarrari zaharra berreskuratzeak herriaren jatorrizko izaera aldarrikatzea suposatatu zezakeen, beraz, gauzak zeuden horretan mantendu zituzten.

Jatorrizko armarraria berreskuratzeak, hortaz, berezko aginte erakundearen mendetako zilegitasunarekin bat egitea adierazten zuen. Eta zilegitasun horren eta zarauztarren herri erakunde nagusia den Udalaren ikur nagusia balea izanik, zarauztarrek harrapatutako azken balearen lehen mendeurrena baliatu zen legezko ikur hori berreskuratzeke. Mendeurren horren pisu simbolikoaren adierazgarri, jatorrizko armarraria berreskuratzeke osoko bilkuran Imanol Muruak, “behin-behineko” alkateak, aurkeztu zuen mozioko hitzak oso esanguratsuak dira. Behin eta berriz

adierazi dugun garai hartan bizi zen egoera ezohikoaren adibide, alkateak euskaraz irakurri zuen mozioa, baina udal idazkariak gaztelerara itzuli eta honela bildu zuen akta liburuan:

“SESIÓN EXTRAORDINARIA DEL AYUNTAMIENTO PLENO CONVOCADA PARA EL DIA NUEVE DE FEBRERO DE MIL NOVECIENTOS SETENTA Y OCHO Y CELEBRADA EN SEGUNDA CONVOCATORIA EL DIA ONCE DE FEBRERO DE MIL NOVECIENTOS SETENTA Y OCHO.

En la Sala Capitular de la Casa Consistorial y siendo las trece horas del expresado día, se reúne, en segunda convocatoria, el Pleno del ayuntamiento al objeto de celebrar la sesión extraordinaria convocada para el día nueve y que dicho día no se pudo celebrar por falta de quorum.

Preside la sesión el sr. alcalde Presidente interino D. Imanol Murua Arregui y asisten los // (fol. 193 r.) Sres. concejales D. Félix Izqueaga Aguirresarobe, D. Sabino Unzurrunzaga Goicoechea, D. Pelayo Zulaica Lizaso, D. José María Argote Azcue y D. Francisco Urquia Mancisidor.

No han asistido, habiendo excusado su asistencia los concejales Dña. María Asunción García Ausa

y Dña. *María Dolores Arocena Gurruchaga.*

Actúa de Secretario el accidental de la corporación D. José María Macazaga Aguirre y se halla presente en calidad de Interventor en funciones D. Juan Zuzuarregui Zabaleta.

Abierta la sesión a indicación del Sr. Presidente, se comienza con la lectura del orden de día, que a continuación se desarrolla así:

ORDEN DEL DIA

UNICO. INCOACIÓN EXPEDIENTE ESCUDO DE ZARAUZ

(con motivo del Centenario de la caza de la última ballena)

Toma la palabra el Sr. Presidente y da lectura a una Moción redactada en vasco y cuya traducción al español dice como sigue:

En la historia de nuestro pueblo muchas veces aparecen noticias sobre la caza de la ballena desde la fundación de Zarauz. El 28 de septiembre de 1237, siendo a la sazón rey Fernando III, se menciona que los zarauztarras, de cada ballena que cazaban tenían que entregar al rey una tira del lomo de la ballena, desde la cabeza hasta // (fol. 193 v.) la cola y que esta obligación, por imposición foral, venía ya de tiempos anteriores.

Muchas veces aparece el nombre de Zarauz en los relatos que se hacen en los documentos que hablan de la caza de la ballena y consiguientes regulaciones para el reparto y demás menesteres.

En 1545, Matías Etxebeste, arponero de Zarauz, fue de los primeros que anduvo a la caza de la ballena por los anchos mares de Terranova.

Se cuenta que el año 1577 quedaron aprisionados entre los hielos de aquellos mares varias embarcaciones en las que murieron 40 hombres de los que 17 eran zarauztarras. Téngase en cuenta que, en aquellas fechas, cada año marchaban a la zona de Terranova unos 80 hombres vecinos de Zarauz.

Por todo ello queda claro que los zarauztarras han tenido mucho que decir sobre la caza de la ballena.

En los últimos años, el Ayuntamiento está utilizando dos escudos y los que hoy formamos la corporación, anta la inconveniencia de esta dualidad, queremos dar comienzo a los trámites legales necesarios para establecer el único escudo válido de la villa.

En 1914 en el libro “Geografía del País Vasco-Navarro” del que es autor D. Serapio Mugica, al hablar de Zarauz y su escudo dice: <<Escudo de armas. El ejemplar más antiguo que conocemos se // (fol. 194 r.) halla en un documento del año 1455 y consiste en un castillo y un león en la parte superior

y en la parte inferior, al par de las figuras primeras, un león y un castillo iguales, y debajo una ballena sobre ondas de agua. En libros de 1847 y de 1862 se dice que el escudo consistía en un castillo de oro en campo azul, con puertas y ventanas de este mismo color, y en la parte superior, en campo de oro, un árbol verde con un lobo negro al pie. El que actualmente se usa tiene en la parte superior un león y un castillo, y en la inferior tres panelas que sin duda se han tomado de la casa de Zarauz, con unas ondas de mar debajo.

No cabe duda que el de 1455, a falta de otro más antiguo, es el que debe considerarse como el verdadero>>.

Hoy, 11 de febrero de 1978 se cumplen 100 años de la fecha en la que Roque Etxabe clavó certero el arpón en la cabeza de la última ballena avistada en las aguas frente a Zarauz y que los zarauztarras lograron capturarla.

Por ello, en recuerdo de los hechos que cuenta la historia y como homenaje a nuestros antepasados, los que hoy nos encontramos en este ayuntamiento queremos tomar el acuerdo de establecer como escudo de Zarauz el que nos indican los historiadores que figuraba como escudo de Zarauz ya el año 1455, es decir:

En la parte de arriba: un castillo y un león, en me-

dio, un león y un castillo y en la parte inferior una ballena entre las olas.

La corporación por unanimidad haciendo suya la moción de la Presidencia acuerda incoar el expediente para establecer como escudo definitivo de Zarauz el que se describe como más antiguo conocido y que se describe al final de la moción.

Y no habiendo más asuntos de que tratar, de orden del Sr. Presidente se levantó la sesión, siendo las trece horas y veinticinco minutos, de los que yo, el Secretario, certifico...”

Imanol Muruaren hitzak historian zehar zarauztarrek izandako izaera itsastarraren aldarrikapena dira, 1978rako, dagoeneko, nahiko ahuldua zegoena. Ez da ba harritzekoa bere agintaldietan zehar izaera hori berreskuratzeko Udalak hainbat ekimen bultzatu izana. Besteak beste, 1972az geroztik egiten zen Getaria-Zarautz igeriketa frogaren jarraipena eta Zarauzko Arraun Elkartearen sorrera (1983) babestu eta Zarauzko Traineru Estropadak (1976) –Zarauzkoa da euskal estropadetan ematen den ikurrinik zaharrena- sortu zituen. 1987an Zarautzen hiribildu izendapenaren 750. urteurrenean *Zarautzi buruzko ikerketak* bilduma sortu zuen Udalak. Bildumaren lehen aleak *Zarautz a través de la*

historia du izenburu eta bertan bildutako artikuluetako bat, *Una nota sobre balleneros de Zarautz (1530-1584)* Selma Huxley ikerlariak idatzi zuen (Huxley, 1987, 319-337 orr.). Ordurako historialari entzutetsua zen Euskal Herrian, gure artxibo zaharretan burututako ikerketari esker, XVI. mendean Terranobara baleatara joaten ziren euskal arrantzaleen historia berreskuratu eta hedatu zuen. 1987an, Gipuzkoako Ahaldun Nagusia izatera iritsi ondorenean ere ez zion Muruak Zarauzko itsastartasuna bultzatzeari utzi: urte luzez etengabeko pitzadurak eta matxurak jasaten egon ondoren moilako iparraldeko pareta –zarauztarrantzat “Morrua”- behin betiko sendotzeko asmoarekin harri-lubetaren eraikuntza bideratu zuen.

Zarauzko balearen historia eta bertsoak, beraz, Zarauzko itsastartasunaren eta itsas ondarearen ardatz nagusienetakoak direnak, berreskuratze-ko eta etorkizunean horien ezagutza bermatzeko helburuarekin sustatu zuen Udalak *Arrantzaleen Bizitza* liburuaren argitalpena. Horixe ba liburu horren funtzio historikoa, gaur arteraino, hamarkada luzez ederki bete izan duena, gainera.

Balea arrantzaren historiari eginiko ekarpena

Ezer gutxi zen 1978an Zarauzko itsas historiak zekitena. Azara kaleko XVI. mendeko atalarri zoragarriaz gain, Zarauzko balearen harrapaketak eragindako ondarea zen garai hartan eskura zituzten itsastartasunaren oroigarri nagusia: Balearen bertsoak, Donostiako Aquariumen jasotako “gure” balearen hezurdura eta Arkaitz Mendi elkartean gordetako balea beraren bizar bat. Hamarkada luzez ahaztutako euskal itsas historia eraikitzeke zegoen oraindik. Ekarpengehienak, aspaldi idatzitakoak ziren, Hegoaldeko kasuan, 1936ko Guda Zibila baino lehenagokoak, ondorioz, gehienak ezezagunak. Diktadura garaian lan bakan batzuk argitaratu ziren. Aipatzekoak dira, nagusiki José de Artetxek (Artetxe, 1942) edo Carlos Claveriak (Clavería, 1966) idatzitako euskal itsas balentriei buruzko lan dibulgatzaileak, eta Vicente Palacio Atardek (Palacio Atard, 1944), José Manuel Imazek (Imaz, 1944) edo Mariano CiriQuiain Gaiztarrok (CiriQuiain Gaiztarro, 1951) idatzitako ikerlanak. Zarauzko itsas historiaren ikuspegitik, aipatutako idazlan guztien artean azkenekoa nabarmendu beharko litzateke. Bertan irakurri daitekeenez, getariarren eta zarauztarren arteko liskarrak ez ziren 1878an hasi, aurretik baizik.

Horren lekuko, 1763an balea baten eta bere balekumearen harrapaketaren ondorioz elkarren artean sortu zen gatazkaren berri ematen du. Azken gertakari hori gaitzat hartuta, Rafael Munoak Getariako Udalarenak diren zenbait panel zoragarri margotu zituen, gainera.

Arrantzaleen bizitza argitaratu aurreko azken ekarpen historiografiko nagusia René Bélanger kanadarrak argitaratu zuen 1971ean. Bera izan zen Kanadan euskal arrantzaleen historiarekiko interesa piztu zuena. Ondorengo urteetako bere jarraitzaile nagusiak Selma Huxley eta Robert Grenier-ek zuzendutako Parcs Canada-ko urpeko arkeologo taldea izan ziren. Dena dela, Bélanger-en lana beranduago egin zen gure artean ezagun, hain zuzen ere, gaztelerara itzuli eta, 1980an argitaratu zenean (Bélanger, 1980). 1978an bizi zen testuinguruan, beraz, Antonio Zavalaren liburuak ekarpen aipagarria egin zuela esan dezakegu euskal balea arrantzaren historiari dagokionean. Dena den, idazlan horrek Euskal Itsas Historian izan duen eragina oso laburra izan zen. Izan ere, Zarautzen balearen mendeurrena ospatzen ari ziren urte hartan bertan, euskal baleazaleen historiari buruzko ezagutzak goitik behera aldatu zituzten aurkikuntzak eman ziren Kanadan. Aipatu berri ditugun ikerlari kana-

diarren emaitza txundigarrienak orduan gertatu ziren. Guztietan aipagarriena 1978an bertan Red Bay-en egindako San Juan baleontziaren hondarren aurkikuntza da, 1565ean hondoratu zena.

Zarauzko balearen bertsoak biltzen dituen liburuaren eragina, kanadarren aurkikuntza handien ondorioz laburra izan zen, baina horrek ez du esan nahi bere edukia zaharkiturik eta gauditurik geratu zenik. Lehenik eta behin aipatu behar da, orokorrean euskal balea arrantzaren historiari buruzko ikerlan gehienak XVIII. mendera arte mugatu direla. XIX. eta XX. mende hasierako balea arrantzaren historia oso gutxik aztertu dute eta azken garai horri buruzko lanen artean osatuenetakoa Antonio Zavalak idatzitakoa da dudarik gabe. Bestalde, ardo onarekin gertatzen den bezala, urteak aurrera joan ahala, esku artean dugun liburuaren edukiak geroz eta balio historiko handiagoa du. Izan ere, duela 45 urte Zarautzen galtzear zegoen mundu baten testigantzak bildu zituen Zavalak eta, ondorioz, herriko itsastartasunaren bilakaera ikertzeko lehen mailako informazio iturri bilakatu da. Batek, XIX. mendeko aldaketa sozio-ekonomikoen (liberalismoa eta industrializazioa) eta politikoen (Foruen ebazpena) ondorioz galtzen ari zen

mundu haren lekukotasunak biltzen ditu. Bestetik, aldaketa horiek Zarautzen eragin zuten bilakaerari buruzko testigantzak biltzen ditu: industrializazioaren eta turismoaren hastapena, horren ondorioz gertatu zen itsas jardueren gainbehera, herri kulturaren eta mundu-ikuskeraren eraldaketa, eta abar.

Zarauzko balearen bertsoen jatorria

Jakina denez Roke Etxabe bera izan zen bertsoen egilea. Bertsoak egiteko inspirazioari eta motibazioari buruz *Arrantzaleen bizitza* liburuan bertan aurki daitezke argibideak, zehazki Donostiako balearen bertsoak bildu eta aztertzen dituen (1854) *Balearenak* deituriko lehen atalean. Azken balea horren harrapaketa donostiarrak eta getariarrak izan ziren elkarrekin liskarrean ibili zirenak eta gertakari horiek 1878ko Zarauzko balearen epaiketan getariarren aurkako froga bezala erabili zituen zarauztarren eta oriotarren abokatuak. Legegizon horrek esandakoen artean ondorengoa bildu zuen Antonio Zavalak: “...podríamos tal vez ofrecerles para su solaz y divertimento (...) alguno de los ejemplares de un gracioso romance vascongado a que dio margen la ocurrencia; castigo único que por medio secular de

sus coblakeris acostumbra imponer este grave, severo y morigerado país a los que fundan una ridícula vanagloria en el prurito de engalanarse con ajenas plumas...” (Zavala, 1978, 21 orr.). Alegia, Euskal Herriko bertsolariak (koblakariak deitzen ditu), besteen (kasu honetan donostiarren) gauzarekin (balearekin) aberastu eta harrokerietan dabiltzanak (getariarrak) zigortzeko bertsoak egin ohi zituztela dio, 1854ko Donostiako balearekin gertatu zen bezala.

Hitzaurre horren ondoren datorren Antonio Zavalaren testuan irakurriko dugunez zarauztarrak eta oriotarrak getariarren aurkako epaiketan galtzaile suertatu ziren 1879ko uztailaren 29an Azpeitian emandako epaian. Ondorioz, 1880an Iruñako epaitegian apelazioa aurkeztu zuten, baina beraien alde eta epaiaren aurka egingo zuen abokaturik aurkitu ez zutenez, bertan behera geratu zen erabakia berrikusteko aukera. Legezko bideak itxita epaitegietako aginduak baino eraginkorragoak izatera iritsi zitezkeen beste “erakunde” baten neurri bila jo zuen Roke Etxabek justizia eske: bertsolaritza, alegia. Zarauzko balearen bertsoak, beraz, Iruñako apelazio saiakeraren ondoren eginikoak, getariarren aurkako justizia edo mendekua lortzeko egin zituen Roke Etxabek. Zarauzko balearen

liskarra gertatu zenetik 145 urte igaroak diren arren, abesten ditugun bakoitzean getariarrak “zigortzen” jarraitzen dugu, beraz.

Arrantzaleen bizitzan, arrantzaleek pairatzen zituzten bizimodu gogorrari eta ezusteko latzei buruzko bertsoez gain, badira balea harrapaketaren inguruko lau sorta, bat Donostiako balearena, beste bat Zarauzkoarena eta bi Oriokoarenak. Denak XIX. mendekoak eta XX. mende hasierakoak dira. Aurreko mendeetan ere balea arrantzaren inguruan herrien arteko liskarrak oso ohikoak izan arren, ez da guganaino iritsi garai hartako bertsorik. Euskal Herriko literaturaren baitan balea arrantzaren inguruko gaiak jorratzeko mendetako tradizio baten existentzia ukaezina da. XVI-XVIII. mendeetako idatzizko literaturari dagokionean, euskal idazleen artean Joanes Etxeberriren, Arnaud Oihenarten edo Pierres Etxeberriren lanak dira aiparrienak. Erdal idazleen artean, Esteban de Garibairen, Juan Martinez de Zaldibiaren, Martin de Oiarzabalen, Andres de Poza lizentziatuaren edo Lope Martinez de Isastiren lanak aipa daitezke. Ahozko literaturari dagokionean, besteak beste, Lapurdin 1798ko bilduma batean jasotako bertsoak nabarmendu daitezke (Urkizu,1987). Jarduera bortitza eta arriskutsua izanik, euskaldunen

izaera noble eta ohoragarriaren erakusle bezala lantzen dute balea arrantza aipaturiko idazle eta bertsoek.

Dena den, gure klasikoen tradizioan ez dago balea bakar baten harrapaketaren inguruko gertakariei eta liskarrei buruzko bertsorik. Hori dela eta, pentsa liteke, balea baten harrapaketari buruzko bertsoak XIX. mendean sortutako moda edo joera baten ondorio izan daitezkeela. Agian atzerritik iritsitako joera bat. Izan ere, Mendebaldeko kulturaren baitan, itsasoa eta bere misterio eta arriskuak, itsas abenturak, esplorazioak eta jarduerak, Erromantizismoaren eraginez, literatura-gai bilakatu ziren XIX. mendetik aurrera. Denok ditugu gogoan, besteak beste, Espronceda, Pérez Galdós, Jules Verne, Edgar Alan Poe, Jack London edo Baroja bezalako idazle unibertsalen idazlanak. Balea arrantza bera ere, mundu osoan ezagunak diren nobeletako gai izatera iritsi zen, hala nola Herman Melville-ren *Moby Dick* (1851) edo Emilio Salgari-ren *Balea arrantzaleak* (1894).

Nola nahi ere, XIX. mendeko balea arrantzari buruzko euskal bertsoetan ez da antzematen literatura unibertsaleko idazlan famatu horien

zuzeneko eraginik. Batzuen eta besteen ikuspegiak zeharo ezberdinak dira, gainera. Mundu osoan hain ezagunak diren aipaturiko nobelatan balea arrantza, gizakiaren eta naturaren indarren arteko eta ongiaren eta gaizkiaren arteko borrokaren sinboloa da. Euskal bertsoetan, aldiz, herri jakin batzuetako biztanleen ohorea aldarrikatzeko eta, behar bada, beste batzuetakoena gutxiesteko neurgailu modukoa da. Euskal literatura klasikoan bezala, XIX. mendeko bertsoetan ere, balea arrantza ohorearekin zerikusia duen jarduera da. Beraz, aipaturiko bertsoak gure mendetako literatura tradizio luzearen oinordekoak direla ondoriozta daiteke. Hau horrela, ezagutzen ditugun balea bakar baten harrapaketari buruzko bertso zaharrenak XIX. mendekoak izatea eta lehenagokoen berririk ez izatea litzake argitzeke dagoen kontraesan bakarra. 1758an Andoaingo apaiz bat, bestek beste, bere bizimoduari buruzko bertsoak atera zizkietela eta, Iruñako Elizbarrutiko Epaitegira eraman zuten. Salatuak adierazi zuen Gipuzkoan etengabe ateratzen zituztela bertsoak, besterik ezean, garrantzirik gabeko edozein gairi buruzkoak gainera. Bere hitzetan: “...*se sacan por qualquiera assumpto por mínimo que sea, por estilo o costumbre que han todos de ello en aquel partido...*”¹. Oso litekeena da lehenagoko men-

1 . Archivo Diocesano de Pamplona, c/1663 – n° 6, 11 at. orr.

deetan ere balea baten harrapaketaren inguruan sortutako herrien arteko liskarretan bertsoak atera izana, tamalez, urteen poderioz galdu egin direnak.

Adierazi berri dugun hipotesia hori ontzat hartuz gero, argitu beharreko galdera ondorengoa litzake: zer dela eta mantendu dira XIX. eta XX. mende hasierakoak herritarren gogoan? Galdera horri erantzuteko XIX. mendean gertatu ziren aldaketa ekonomiko, sozial eta politiko sakonen eragina izan behar da kontuan. Mendetan zehar, batez ere, kantauriar isurialdeko euskal lurraldeetako ekonomiaren ardatz nagusia itsasoa izan zen. Mundu osoko ozeanoetan zehar zebiltzan ontzien eraikuntza eta itsas merkataritza, garraioa eta arrantza bezalako jardueren garapenean eta kudeaketan maisuak izan ziren euskaldunak. Lehorreko jarduera ekonomikoak ere (burdingintza, sagardogintza, basogintza eta abar) itsasoak ezarritako baldintzen arabera antolaturik zeuden. Itsas jardueren garapenerako beharrek baldintzatu zituzten halaber euskal gizarte antolaketaren (legezko berdintasuna Kaparetasun Unibertsalaren bitartez) eta erakunde politikoen (Foruak edo legedi propioak, Batzar Orokorrak eta Diputazioak) ezauzgarri bereziak. XIX. mende hasieratik aurrera,

nazioarteko harreman politikoetan emandako aldaketa sakonen ondorioz, euskal itsas jarduera horien gainbehera hasi zen. Eta industrializazio prozesua izan zen jarduera horien krisiak eragindako hutsunea bete zuena. Industria berriak hedatuz zihoazen heinean jarduera tradizionalen gainbehera areagotuz joan zen.

Aldi berean iraganeko egitura sozial eta politikoak aldaketarik gabe mantendu (karlistak) eta irauli (liberalak) nahi zituztenen arteko gatazkak eta gerrateak eman ziren. Ondorioz, azken Guda Karlistaren (1872-1876) amaieran Foruak eta foru erakundeak ezabatuak izan ziren. Gertakari horiek jarduera tradizionalak pairatzen zuten gainbehera areagotu egin zuten. Nekazaritza (baserritarrak) eta bazterreko arrantza (arrantzaleak) ziren bizirautea lortu zuten iraganeko jardueretan nagusienak, nahiz eta horiek ere aldaketa sakonak bizi izan zituzten. Arrantzari dagokionez, adibidez, konpainia eta antolaketa eredu berriak erabiltzeaz gain, arrain kontserba industriek zabalkunde nabaria izan zuten portuetan eta komunikazio bide berrien eraikuntzak (errepideak eta trena) urrutiko merkatuetan arraina saltzeko aukerak sortu zituen. Dena den, arrantzan erabilitako azpiegiturak (ontziak eta aparailuak) lehenagoko moldekoak

izaten jarraitu zuten neurri handi batean, XIX. mende amaieratik aurrera ekarri baitzituzten lehen baporeak.

Testuinguru horri, iraganean eta herri kulturaren herrien jatorrizko izaera eta berezitasunak aurkitu nahi zituen Erromantizismoa gehitu zitzaion. Horren guztiaren eraginez, balea harrapaketa bakoitza, galdutako iragan loriatsu eta handitsuarekin uztartzeko aukera batean bilakatu zen XIX. eta XX. mende hasierako arrantzale eta kostako herrietako biztanleentzat. Iragan hartan, aberastasun, botere, ospe eta ohore iturri ziren itsas jarduera nagusienetakoa zen balea arrantza. Euskaldunek ozeano guztietan barrena burutu zituzten Elkanoren Lehen Mundu Bira, Urdanetaren Ozeano Barean zeharreko itzulbidearen aurkikuntza, Legazpiren Filipinetako konkista, Gaztañetak buruturiko ontzigintzaren iraultza, Okendo, Lezo eta beste hainbaten itsas guduak eta Real Compañía Guipuzcoana de Caracas-en Venezuelako merkataritza monopolioa bezalako balentria eta jarduera ohoragarrietako bat zen haien aburuz balea arrantza. XIX. eta XX. mendeetan, maiz, sozialki gutxietsiak eta baztertutak ziren arrantzale xume haientzat, mendetako itsas izaera eta tradizio baten oinordekoak izaten jarraitzen zutenaren adierazle zen

balea harrapaketa bakoitza. Balea arrantzan sortutako istiluetan, aldiz, herri bakoitzeko arrantzaleen ohorea zegoen jokoan. Ondorioz, gertakari berezi horiei buruzko bertsoak, belau-naldiz belaualdi transmititu dira gaur arterai-no, herriaren izaera itsastarraren eta ohorearen adierazgarri eta oroimen modura.

Itsastar ohorea jokoan

Balea arrantza, diru iturria izateaz gain, dagoeneko Erdi Aroko zarautzarrentzat ere hiri-bilduaren armarrian txertaturik azaldu behar zuen jarduera ohoragarria zen. 1878ko arrantzale zarautzarrentzat ere balea harrapatzea beren itsastar izaera eta ohorea aldarrikatzeko aukera bat zen. Baina getariarrak hori zapuztera etorri ziren. Itsasoa zen, beraz, ohorehori neurtzeko borroka zelaia, dela arrantzan, dela arraunean, dela getariarrekin edo beste edozeinekin leian. Getariarren aurkako sentipenak bero-bero zeuden gainera, balea harrapatu zutenean bi urte bete baitziren azken Guda Karlista 1876ko otsaila bukaeran amaitu zenetik. Guda horretan bi herriak elkarren etsai izan ziren: Getaria liberalek Gipuzkoan izan zuten plaza militar bakanetakoa izan zen eta Zarautz, aldiz, Getaria

setiopean izan zuen gudaroste karlistaren atze guardiako herri nagusia. Balearen bertsoetan nabariak dira gerra usainak, Roke Etxabek 16. bertsoan “*kañoi bat kargatuta / iruki banuan, / kulpa zuben guziya / garbituko nuan.*” esaten due-nean.

Ondoren irakurtzeko aukera izango dugun Antonio Zavalak bildutako bertsoetan eta balearen epaiketako idazkietan bildutako zarauztarren eta getariarren bertsoetan, behin eta berriz, ikus dezakegu bi herrietako arrantzaleen arteko gatazkaren sorburua zarauztarren mindutako ohorea izan zela. Gehientsuenok bertasio ezberdinak entzun izan dizkiegu zarauztar “zaharrei”. Besteak beste, haurra nintzela bi bertasio kontatu zizkidaten niri etxean. Batetik, amaren aldeko amonak eta bere ahizpa zaharrenak (1895ean, hau da, balea harrapatu eta 17 urte beranduago jaioa) zioten balea iluntzean Mollarri aldean hil eta bertako haitzetan amarraturik utzi zutela hurrengo goizean bila joateko asmoarekin. Gaeuz, ordea, getariarrek ostu eta Getariara eramane omen zuten. Bestetik, aitaren aldekoek zioten Zarauzko moila txikia zela eta lanak errazteko asmoz Getariakora eramatea adostu zutela, baina, balea han sartu eta berehala getariarrak egin zirela indarrez haren jabe.

Argi eta garbi ikus dezakegu, ahoz-aho transmititutako kondairak kontu handiz erabili beharreko informazio iturri direla, beti ere jatorrizko beste informazio iturri batzuekin alderatu behar dena. Aztertzen ari garen kasuan, auziak biltzen dituen bertasioak aztertuz gero, berehala antzemango dugu, zarauztarren (oriotarrekin batera) eta getariarren arteko desadostasuna ez zela balearen harrapaketa sortu, ondorengo gertakarietan baizik. Harrapaketa Zarauzko Javier Caperochipiren (Zarautz, 1843) ontziak hasi bazuen ere, berehala batu zitzaizkion Getariako beste hiru ontzi, Antonio edo Anton Aramberri (Getaria, 1847), Estanislao Aizpuru (Getaria, 1848) eta Francisco Berasaluce (Getaria, 1847) patroizituztenak, eta lanak elkarrekin egitea adostu zuten. Roke Etxabek (Zarautz, 1844) lehen arpoikadaz balea atxiki ondoren, aipaturiko lehen bi ontzi getariarrek ere (hirugarrena, Berasalucerena, baleatarako armarik gabe baitzegoen) arpoiaz jo zuten arren, ez zuten lortu atxikitzerik. Egoera horretan, inguruan zebilen Jose Antonio Agote (Orio, 1845) oriotarraren ontzi-koek, zarauztarrendik eskuratutako beste arpoi bat sartu zioten baleari. Geroxeago zarauztarrek hirugarren arpoia sartu behar izan zioten, lehenengoaren estatxa eten ondoren. Bi ontziak atoian eramateaz nekatu zenean, aipaturiko bi getariar ontziak gerturatu eta dardoez edo xaba-

linaz sastatu zuten balea odolustu zedin.

Esan bezala, balea hil ondoren hasi zen gatazka. Zarauztarrek (baita oriotarrek ere) uste zuten balea Zarauzko moilara, edo, gutxienez, kostara (horrela deitzen dugu Zarautzen hondartza) eramateko eskubide osoa zeukatela. Batetik, beraiek izan zirelako balearen harrapaketa hasi, lehen arpoia sartu eta gainontzeko herrietakoen parte hartzea baimendu zutenak. Bestetik, Zarauzko uretan hasi eta bukatu zelako harrapaketa. Azkenik, Zarauzko moila eta kosta beste bi herrietakoak baino askoz gertuago zeudelako hildako balea bertara eramateko. Badirudi getariarrek ontzi eta marinel gehiago izatearen abantaila baliatu zutela indarkeriaz balea beren herrira eramateko, besteak beste, Ubide parera (hau da, Zarauzko eta Getariako uren arteko mugara) txalupa batean gerturatu zen Zarauzko alkatearen aginduei jaramonik egin gabe. Hori gutxi ez balitz, balea atoian zeramaten bost ontzien arteko liskarra baretzeko, harrapakina Getariako moilan sartu beharrean Malkorbe-ko badian zeuden ilabetako batean amarratuta uzteko Estanislao Aizpuru patroiarekin adostu zuten hitzarmena ere hautsi eta moila barrura sartu omen zuten, besteak beste, bertako alkatearen aginduz. Balea Getariatik Zarautzera

itzultzea eskatzeko, edo, gutxienez beren herrira ez eramateak eragindako kalteen ordainketa eskatzeko jo zuten epaitegietara zarauztarrek. Epaiketak aurrera egin ahala, harrapaketan parte hartu ez zuenez, Francisco Berasaluceri balearen irabazien banaketan ez zegokiola parterik gaineratu zuten zarauztarrek.

Getariarrek ez zuten ontzat ematen nahi eta nahi ez balea beraien herrira eramateko zarauztarren ustezko eskubidea. Zarauztarrekin desadostasunean egoteko hainbat arrazoi zituzten. Batetik, elkarren arteko hitzarmenean balea hil ondoren nora eraman zuten adostu. Beraz, gehiengo izanik, bidezkoena Getariara eramatea zela esan zuten. Bestetik, hitzarmena zarauztarren eta getariarren artean bakarrik adostu zen. Ondorioz, Jose Antonio Agoteren ontzikoek balearen irabazien banaketan eskubide berdina izatea ez zuten onartzen. Haien aburuz, oriotarrek zarauztarren irabazietatik jaso beharko lukete zegokien zatia. Azkenik, zarauztarren aurkako indarkeriarik gabe eraman zuten balea Getariara eta Marinako Ministroaren aginduz sartu zuten moila barrura. Haien ustez, indarkeria erabili zuen bakarra Zarauzko alkatea izan zen, Getarian aginterik izan ez arren eta armaturiko karabinero batzuen laguntzarekin, balea moila

barrura sartzea ekiditen saiatu zelako. Zarauzko alkatearen gehiegikeria jakitean eman omen zuen Getariakoak balea moila barrura sartzeko agindua.

Batzuen eta besteen esanak aztertu ondoren baieztatu liteke, deskribatutako gatazkan helburu, interes eta arrazoi ezberdinak zituztela getariarrek eta zarauztarrek. Getariarrentzat, balearen harrapaketatik atera zezaketen etekinean zegoen koska, zarauztarrentzat, aldiz, beren itsastar izaeratik eratorritako ohorea zegoen jokoan. Getariarren itsastar izaera ukaezina zen, gehienek, itsasotik, arrantzatik ateratzen baitzuten bizimodua. Askotan, itsasoko ohiko ezbeharren eta arrainaren prezioaren gorabeheren ondorioz, nekez, gainera. Harrapaketan parte hartu zuten getariarrentzat baleak eman zitzakeen etekinak etxeko diru sarrerak handitzeko eta bizi-modu latza zerbait hobetzeko aukera bat zen. Getariarrek zarauztarrekin parte hartzea adostu eta gero, beren iritzia kontuan izan gabe, zarauztarrek oriotarrak ere balearen harrapaketan sartzea onartu zuten. Pentsa dezakegu getariarrek hori ikusi zutenean hartu zutela balea Getariara eramateko erabakia. Balea Zarautzera eramanez gero, irabazien banaketa egiterakoan bazekiten oriotarrek gainontzekoei zegozkien

eskubide berdinak eskuratzeko aukera hobeak izan zitzaketela. Zarautzera eramanda, etekinen banaketaren inguruan liskarren bat sortuz gero, Francisco Berasaluceren ontzikoak zatirik gabe geratzeko arriskua ere handiagoa zen. Gainera, balea Getariako moilan sartuz gero, hura ikustera etorriko ziren ehundaka bisitariak ere herrian sosa batzuk utziko zituzten.

Bigarren mailako kontua izan arren, zarauztarren mindutako ohoreari erasotzeak ere bazuen, noski, garrantzia getariarentzako. Horren lekuko, Getariako moilan usteldu zen balearen hezurak Donostiara (bertako udalak erosiak) zeramatzan ontziak (Anton Aramberri bera patroi zela) Zarauzko kostara bota zituen sekulako kiratsa zerien balearen gorpuzki ustelak. Zarauztarrek ere ez zioten, noski, muzin egin nahi baleak eman zitzakeen etekinei, baina kontu hori bigarren mailako zerbait zen. Zarauztarrak dagoeneko ez ziren arrantzatik bakarrik bizi. Industrializazioaren eta turismoaren hastapenak diru sarrera berriak ekarri zituen eta bertako arrantzaleek, itsasoan ibiltzeaz gain, fabrika berrietan eta udatiar aberatsen zerbitzura bainero eta lorezaintzan ere egiten zuten lan. Baina *Arrantzaleen bizitza* liburuaren (1854) *Balearenak* atalean irakur dezakegunez, 1878ko balea-

zale zarauztar haiek mendetako balea arrantza tradizioaren ondorengo bezala ikusten zituzten beren buruak. Horren lekuko, ondorengo adierazpenak egin zituen zarauztarren aldeko abokatuak getariarren aurkako epailetan: “...*Cómo es cierto que la última ballena capturada en la Costa Cantábrica desde el Cabo Híguer al Machichaco, hasta que los marineros de San Sebastián pescaron en 1854 la de que acaba de hacerse mérito, lo fue por los marineros de Zarauz a principios del presente siglo, y estuvo expuesta y fue exhibida y utilizada en la playa o arenal del mencionado puerto de Zarauz.*” (Zavala, 1978, 19 orr.). Aipaturiko azken balea hori 1801ean harrapatu zuten zarauztarrek². Arbasoengandik jaso zuten bizimodu gogorra, neurri batean bada ere, samurtzea lortu zuten arren, beren itsastar izaera gainbehera zegoela ikusten zuten. Balea harrapatu eta herrira ekartzea izan zitekeen, beraz, gainbehera aldi hori eteteko aukerarik eraginkorrena.

Baina getariarren jokabideak eta epaileek emandako epaiak erabat zapuztu zuten zarauztarren izaera itsastarra eta ohorea aldarrikatzeke aukera. Epaileak, noski, beren ohore mindua baretzeko zarauztarrek getariarrei eskatu zizkieten

2 . Donostiako Elizbarrutiko Artxibo Historikoa, *Zarauz, Santa María la Real*, Libro de cuentas de la Cofradía de la Veracruz.

kalte-ordainak ez zituen kontuan hartu. Epaiaik getariarren alde egin zuen, adieraziz, bi herrietako arrantzaleek eginiko hitzarmenetan ez zutela adostu balea Getariako moilara eraman ezin zitekeenik. Gaineratzen zuen, hala hitzartu izan balute ere, moila horretara eramateak ez zuela baleari etekina ateratzea kaltetzen eta galerak elkarren arteko desadostasunaren ondorioz gertatu zirela.

Dena galduta, itsastar ohore mindua asetzeko zarauztarrei geratzen zitzaaien bide bakarra mendekua zen. Eta balearen bertsoak izan ziren mendekua egiteko erabili zuten tresna. Zarauztarrek ez bezala, getariarrek ohorerik ez dutela da bertso horien aldarrikapen nagusia. Pertsona ohoragarrien ezaugarri guztiak falta dituzte getariarrek: koldarrak (1. bertsoaren 4. puntua, 2. bertsoaren 5. puntua, 5. bertsoaren 3. eta 4. puntuak, 6. bertso osoa, 11. bertsoaren 4. eta 5. puntuak, 12. bertsoaren 5. puntua, eta 21. bertsoaren 4. eta 5. puntuak), zekenak (7. bertsoaren 4. eta 5. puntuak), lapurrak (11. bertsoaren 1. eta 2. puntuak, 14. bertsoaren 1., 2. eta 5. puntuak, 15. bertsoaren 5. puntua, eta 20. bertsoaren 1. puntua), hitzik gabekoak (13. bertsoaren 2. eta 3. puntuak), petralak (16. bertsoaren 3. puntua), gizalegerik gabekoak (14.

bertsoaren 3. eta 4. puntuak, eta 15. bertsoaren 3. puntua), gezurtiak (17. bertsoaren 1. eta 2. puntuak) eta ustelak (20. bertsoaren 4. eta 5. puntuak). Getariarren itsastar izaera ere erasotzen dute, arrantzale txarrak direla adieraziz (21. bertsoaren 3. puntua). Ohorerik ez dutenez, errespeturik ere ez dute merezi eta, ondorioz, iseka egiten die, bai bertako agintariei (17. bertsoaren 3., 4. eta 5. puntuak, eta 18. bertsoaren 3., 4. eta 5. puntuak), baita haien itsastar izaeraren eta ohorearen ikur nagusia den Elkanori ere (12. bertsoaren 3. eta 4. puntuak, eta 18. bertsoaren 1. eta 2. puntuak). Aldiz, zarauztarrak ausartak (3. bertsoaren 1. eta 2. puntuak, 4. bertso osoa, eta 8. bertsoaren 3., 4. eta 5. puntuak) eta eskuzabalak (7. bertsoaren 1., 2. eta 3. puntuak) bezala agertzen dira.

1978an *Arrantzaleen bizitza* idazteko Antonio Zavalak elkarrizketatu zituenentzat ehun urte lehenagoko balearen harrapaketak zarauztarren itsastar izaera eta ohorearekin zerikusituzuzena izaten jarraitzen zuen. Eta getariarrekiko temak ere bizi bizirik zirauen. Roke Etxabe arpoilaria izan zenaren bilobak emandako bertsioan, bere aitona eta gainontzeko zarauztarrak ez bezala, arrantzatik bakarrik bizi ziren getariar haiek alferrak ziren, “...*beste kolperik egiten ez dutenak*

bein ere (...) kutxilloa zorroztu eta Elkano'ren azpian egon itxasoari begira". Gainera, balea gertu ikusi zutenean beldurtu egin omen ziren eta zarauztarrek eta oriotarrek "...*bein menderatu ta gero...*" gerturatu ziren dardoekin errematatze-
ra. Hildako balea Getariako moilan sartuko ez zutela adostu zuten arren "...*an indarra getariarrak, eta sartu indar guzian jendea eta berena zutela*". Jaiotzez azkoitiarra izan arren, 1930az geroztik Zarautzen bizi zen Patxi Larrañaga (Patxi Barbero) bertsolariak ere berretsi egin zuen bertsi hori eta ondorengoa gehitu zuen: "...*lengo arrantzale zarrak ola esan oi zidaten neri, batek baño geiagok*".

1970 eta 1980ko hamarkadetan gaur egun baino sendoago zegoen noski "antzinako" itsastar izaera zarauztarren artean. Ez da, beraz, harritzekoa Antonio Zavalak testigantza horiek bildu izana. Bizirik zeuden oraindik Zarauzko Itsasgizonen San Antonio Kofradia (1940ko hamarkadan galdu zena) indarrean ezagutu eta 1954az geroztik moilako ontzijabe elkartearen erakundetze prozesuari hasieran eman zioten "arrantzale zahar-
rak". Moilan 54 ontzi zeuden orduan –haien artean Imanol Murua eta bere senideen *Arantzazu* motorra- eta Zarauzko "jatorrizko" kaletarren arteko gehientsuenek, zuzenean edo zeharka,

harremana zuten ontzien jabeekin. Guztiak dagoeneko aisialdiko arrantzarako batelak eta motorrak ziren. Hala ere, baziren hamarkada haietako krisialdi ekonomiko bortitzaren ondorioz langabezia geratutako zenbait eta ontzi horiekin harrapatutako txibiak, lupiak, urraburuak, itsaskabak, barbarinak, nekorak, solaiak edo izkirak Getariako eta Zarauzko jatetxe eta tabernetan edo Zarauzko Berdura Plazako sarrean txitxarroak eta arrain txikiak (panekak, kabrak, pantxoak, dontzeilak, txistuak...) salduaz bizimodua ateratzen zutenak ere. Bizi-bizirik zeuden udako arratsaldetan moila gainean biltzen ziren arrantzale haien kontakizunak, besteak beste, getariarrekin, 1878ko baleaz gain, izandako hamaika istiluren ingurukoak, haien lepora barre egitekoak, haien aldean zarautarrak “beti” arrantzale hobeak izan zirenari buruzkoak eta abar.

1978an, beraz, balearen harraketak zarautarren itsastar izaera eta ohorearekin estuki loturiko gertakaria jarraitzen zuen izaten eta testuinguru horretan ulertu behar ditugu lehen mendeurrenaren harira antolatu eta burutu ziren ekintzak. Zarautzen ordurako iraganeko itsas jarduera loriatsu gehienak galduak zeuden eta ohorea eta oroitzapenak aldarrikatzea bes-

terik ez zitzaizkien geratzen. Baina une hartan sentipen hori ez zen dagoeneko zarauztarren kontu bat bakarrik. Orduko getariar gehienak arrantzatik bizitzen jarraitzen zuten arren, mendeurrenak antzeko sentipenak eragin zizkien. Zarauztarrentzat ez bezala, ordea, benetako arrantzale haientzat balea bat gehiago edo gutxiago harrapatzearen inguruko ohore-gatazka bigarren mailakoa zen. Zarauztarrentzat 1878ko balea beren izaera itsastarraren sinbolo edo adierazgarririk nagusienean bilakatu zen bezala, getariarrentzat Elkanok eta bere Lehen Mundu Birak betetzen zuten eginkizun hori.

Zarauzko Udalak jatorrizko armarrria berreskuratzeko balearen mendeurrena baliatu zuen bezala, Getariakoak Donostian herbesteraturik zegoen Elkanoren brontzezko irudia herriratzeko erabili nahi izan zuen. Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskariz Antonio Palao eskultoreak 1868an egindako irudia, agintari frankistek jatorrizko lekutik kendu eta Donostiara, errepublikarrek hondora botatako *Baleares* gurutzontzian hildakoen omenez Paseo Berrian eraikitako monumentora eraman zuten. 1938az geroztik bertan igaro zuen Diktadura garai osoa. Elkanoren irudiaren lapurreta, beraien izaera itsastarraren aurkako eraso izan zen getariarrentzat. Ekintza horrek ederki

adierazten du iraganeko itsas balentriak aldarrikatu nahi zituela adierazten zuen erregimen haren benetako asmoak zeintzuk ziren: besteak beste, euskal historiaren eta izaeraren zanpaketa eta suntsiketa. Balearen mendeurrena zela eta lehen aipatu dugun Getariako udalbatza aretoan jarritako balea arrantzari buruzko erakusketa-
ren inaugurazio ekitaldira gonbidatutako agintariei (Gobernadore Zibila, Diputazioko presidentea, Marinako komandantea eta Donostiako alkatea) Elkanoren irudia Getariara itzultzea eskatu zien Getariako alkateak. Ondoren biltzen den otsailak 9ko Egin egunkariko artikuluko bategen, ekimen horien berri emateaz gain, irudia “antza denez” gerrarako “materiala” egiteko eraman zutela dio. Horra, ahozko informazioetan oinarritutako iturri historikoak kontu handiz erabili behar direnaren beste adibide ederra.

“Getariko getariarrentzat. Gaur getariarrek ehungarren urtehurrena ospatzen dute, Zarauzko hondartzan azkeneko balearen harrapaketa egin zutela eta. Arrazoi horrengatik, ospakizun solemna bat egingo da gaur osteguneguz udaletxeko Ekitaldi Aretoan. Ospakizun hori dela eta, bestalde, balearen arrauntzari (SIC) dagozkion zenbait artisten akuarelen erakusketa bat inauguratuko da.

Ekitaldi horri, gaueko 8tan emango zaio hasiera. Ondoren, Iñaki Linazasoro idazle ezagunak mintzaldi bat emango du euskal arrantzaleek eta getariarrek bereziki balea nola harrapatzen zuten agertuz. Beste jaun haundiren artean, gobernadore zibila, Diputazioko presidentea eta Donostiako alkatea ere bertan izango direla agindu dute. Azkenik, eta amaitzeko, “Gora Elkan” getariarren ererki ezaguna abestuko du abots nahastuzko koru handi batek.

Itxura denez, getariarrak jaun haundi horien presentzia aprobetxatzeketan dira. Eta Donostiako alkate Otazu jaunarena bereziki. Izan ere eskatua dute behin eta gehiagotan, Donostiako Paseo Berrian aurkitzen den Juan Sebastian Elkanoren brontzezko irudi hura. Berea baitute. Eta gerrako arrazoi nagusigoak zirela eta, gerrako materiala egiteko, antza denez kendu egin zieten. Eta hantxe dago oraindik, bazter batean abandonaturik, bere bakardadea ausnartzen”.

Azkenean, goi agintari horien, batez ere, Donostiako azken alkate frankista izan zen Fernando de Otazuren erabakiaren eta baimenaren zain egon gabe, getariar talde batek inoren baime nik gabe herrira bueltatu zuen irudia gruadun kamioi bat baliatuz. Getariarrek gerra garaian

ostu zieten beren itsastar ohorearen ikur nagusia herrira itzultzea lortu zutela ikusirik, Zarauzko moilako arrantzale bati neronek entzun nion Imanol Murua alkateari esaten: getariarrek “ostutako gure” balearen hezurak ere Aquariumetik herrira ekarri behar zirela. Zarautzen gure itsastar ohorea aldarrikatzeko eta irudikatzeko ez daukagu 1878ko balearen harrapaketa monumenturik, ezta bere hezurdurarik ere. Eta agian horretarako beharrik ere ez dugu, hor baitauzkagu “gure” balearen bertsoak, agian euskal literaturak inoiz sortu eta gaur arteraino iritsi diren balea arrantzari buruzko bertso epikoenak izan daitezkeenak eta Roke Etxabe zarautzarron mendetako itsastartasunaren ikur bilakatu dutenak.

Bibliografía

ARTETXE, J.: *El Cano (Juan Sebastián de)*. Madrid, Espasa-Calpe, 1942.

BÉLANGER, R.: *Los vascos en el estuario del San Lorenzo. 1535-1635*. Donostia-San Sebastián, Auñamendi, 1980.

CIRIQUIAIN GAIZTARRO, M.: *Los vascos en la pesca de la ballena*. San Sebastián, Biblioteca Vascongada de los Amigos del País, 1951.

CLAVERÍA, C.: *Los Vascos en el Mar*. Pamplona, Editorial Aramburu, 1966.

HUXLEY, S.: “Una nota sobre balleneros de Zarautz (1530-1584)”, *Zarautz a través de la historia*. Zarautz: Zarauzko Udala, 1987, 319-337 orr.

IMAZ, J.M.: *La industria pesquera en Guipúzcoa al final del siglo XVI*. San Sebastián, Imprenta de la Diputación, 1944.

PALACIO ATARD, V.: “Los Vascongados y la pesca de Terranova”, *Anuario de Estudios Americanos*, 1 (1944), 723-740 orr.

URKIZU, P.: *Bertso zahar eta berri zenbaiten bilduma (1798)*. Durango, Durangoko Udala, 1987.

ZAVALA, A.: *Arrantzaleen bizitza*. Tolosa, Auspoa Liburutegia, 133, 1978.

Testuaren jatorria:

Zavala, Antonio (1978). *Arrantzaleen bizitza*; Tolosa: Editorial AUSPOA.

Kapitulua: (1878) *Zarautz'ko balearenak* (24-74 or.)

(1878)

ZARAUZT'KO BALEARENAK

1878'eko Otsaillaren 11'an, bale bat azaIdu zan Zarautz'ko uretan, eta zarauztarrak, getariarrak eta oriotarrak alkar artu eta il egin zuten.

Il orduko, ordea, alkarrekin zapuztu egin ziran: zarauztarrak eta oriotarrak getariarren aurka. Zarauztar batek ogei ta bi bertso jarri zituan. Gaur egunean ere, oso bertso ezagunak dira.

Lenengo, bi doñu jarriko ditugu: Patxi Larrañaga'k kantatua lendabizikoa, eta Santos Leunda eta Santos Azpeitia'k kantatua bigarrena. Ondoren, bertsoak. Eta irugarren, bertso aueri buruzko zer esanak, gauzak noIa gertatu ziran eta abar alegia, oraingo ontan iturri ugarriak izan ditugu eta.





1/ Milla zortzireun da
setenta y otxuan,
Zarautz'tik txalupa bat
bale tara juan;
Anton getariarra
lagun artu zuan,
gizon balientia
ori zalakuan,
obe zuan Kaperok
ikusi ez bazuan.

2/ Lenengo suertia
zan Antonentzako,
badira motibuak
kantak jarritzeko;
aguro pronto jarri
ziran agintzeko,
ori basta izan zan
bazterrak nasteko,
an etzan korajerik
arpoia sartzeko.

3/ Lenengo estokada
zarauztarrentzako,
asko bildurtu gabe
oriek zuten jo;
bai ta esnatu ere
bazeguen ere lo,
kuadrilla ederra giñan
eule ta errero,
ongi portatua da
Jabier Kapero.

4/ Arpoia eskuan da
korajez beterik,
Roke Etxabe zegon
aurrian zut-zutik;
ez al zaio azaltzen
balia urpetik,
ezarri zion firme
bizkar-ezurretik,
jendiak esan zuan:
«Orrenak egin dik!»

5/ Ordubi t´erdietan
arpoia sartuta,
marru egiten zuan
arek miñ artuta;
getariar oriek
danak bildurtuta,
kanpuan egon ziran
kobardiatuta,
uste gendun zeudela
danak erituta.

6/ Mutriku´tik txalupa bat
bertara etorri zan,
sinistuko etzuten
an izan ez bazan;
«Kobarde!» diadarka
gizon bat asi zan,
oso mantso mugitu
sapo baten gisan,
oiekgatik balía
oraindik bizi zan.

7/ Getari etorri zan
arpoiaren galdez,
ikusten zitulako
txalupa aiek trabes;
baietz agindu giñon
geure borondatez,
Antonek albotikan
ematerik nai ez,
naiz berak baliari
batere sartu ez.

8/ «Antonek arrazoia
emanagatikan:
«etzazutela egin
orrelakorikan» ,
nere lagunak, fuerte
tira sokatikan,
aguro azaldu dedin
balia urpetikan,
korajez tira arpoia,
sartu gogotikan.»

9/ Ikusi dutenian

balia ur-mintzian,
bi arpoi sartu dizke
gogor biotzian;
indarrak aplakatu
odol ixurtzian,
ez da geio esnatuko
arnasa aitzian,
derrepente il zaigu
ia illuntzian.

10/ Getari´ri lagun bat

putzura bulkatu,
desgrazia aundi bat
iya zan gertatu;
gutxigatikan ez du
baliak tragatu,
nik gezurra badiot
danari galdetu,
aguro jango zuan
ez bazuten artu.

11/ San Pelaiok milagrua
aguro egin du,
burua edo mingaña
guk giñon agindu;
kukutxuak soñua
aldrebes jo digu,
testamentaio Anton
baliak jarri du,
miñik ez dio eman da
ederki egin du.

12/ Aguro egin da ori
aziendaren jabe,
guk probetxurik ez ta
beretzako kaIte;
oju egiñaz: «Ni naiz
emengo errege»,
Elkano´ren onduan
ipintzen badute,
gizon balientetzat
irukiko dute.

13/ Molla gañera ginduzten

iru lagun iyo,
gure konbeniyuak
eztu asko baliyo;
gizonak egitia
ainbeste traiziyo,
egunen batian orrek
igerriko diyo,
zein dan jakin zazute
Jose Gregoriyo.

14/ Mediku eta apaiz,

bestia alkatia,
bale-sokai tiraka
bazan an jendia;
gizon armatuakin
garbitu bidia,
lapurrari bezela
iriki atia,
preso artu gaituzte
geu eta balia.

15/ Kontxan laga biarrian

mollan dute sartu,
aziyo orrengatik
ez giñaren poztu;
arrika ematia´re
etzitzaien aztu,
tripulaziyo dana
oso giñan nastu,
orregatik Antonek
balia erraz ostu.

16/ Ikusi nubanian

balia barruan,
penaren poderiyoz
negar egin nuan;
gizon petrala pranko
bazan an orduan,
kañoi bat kargatuta
iruki banuan,
kulpa zuben guziya
garbituko nuan.

17/ Gau artan bota zuben

gezurrez partia,
argatik izandu zan
guretzat kaltia;
Sebastian du izena,
ez dakit lonbria;
zume-punta batekin
ango alkatia,
oju egiten zuben:
«Neu naiz erregia!»

18/ Elkano´k bi seme orain

errege baditu,
gizon brontzezko orrek
nola egin ditu?
Zume zar baten puntak
ainbeste meritu,
Zarautz´ko alkatiak
errekan baditu,
pobriak serbitzeko
irukitzen ditu.

19/ Denbora juañ baño len

egin aziyua,
badakizu dezuna
obligaziyua:
egiten badezute
errustiziyua,
emango zazutela
ausoluziyua,
bestela or dezute
kondenaziyua.

20/ Besteren gauzarekin

ainbeste grandeza,
gaizki atera zaie
orduko promesa;
«Balía guria dek»
orain esan beza,
zenbat pagatu duten
egin det ametsa:
ogei milla errial
Pamplona´n jueza.

21/ Oiek zer egin duten
eztiyou igerri,
egiya esan biar
errege jaunari;
arpoi asko tiratu,
guziak urari,
ori jarri biar da
txori-bildurgarri,
kobardia dalako
Anton Aranberri.

22/ Atzeneko bert sua
kantatu artian,
jaunak, egon zaitezte
al bada bakian;
gorrotorik ez artu
alkarren artian,
egon nai ezpadegu
loturik kation,
danok sartzeko gero
zeruko atian.

* * *

Orain, bertsoak nundik artu ditugun adieraziko degu.

Roke Etxabe´ren billobak esan digunez, bertso auk inprentatu gabeak dira, baiñan berak makiña bat bider kopiatu eta zabalduak. Itxura danez, bestek ere egin izan dute lan ori bera. Guri beintzat makiña bat kopia eman digute zarauztarrak, bertso auk liburura asmotan giñala ikasten zutenean.

Baiñan kopia asko bai eta bi berdiñik ez. Bakoitzak bere aldaketak. Aldaketa askorik ere ez, ordea, eta txikiak geien-geienak. Kopiatzaileak uste gabean egiñak.

Kopia oiei lenengo amaika bertsoak artu dizkiegu. Baiñan batetik au berezi eta bestetik beste ura, beti ere erarik egokiena billatuz.

Zarautz´ko kopia oiek, geien-geienak, erde-razko adierazpen bat dute aurretik: *“La ballena muerta pegando a Mollarri por parte del Nordeste, en el día once de febrero de mil ochocientos setenta y ocho. (Copia del título de los versos firmados por Roke Echave.)”* Gutxi gorabeera, danak berdin.

Roke Etxabe´ren billobak arkitu zuan paper batek, leenago bearbada bertso guziak izango zituán, baiñan orain puska falta-edo eta hamaika bertso ditu, 12´garrenetikan asi eta 22´garrene-

raino, eta 21'garrena ere falta. Paper orretatik aldatu ditugu guk amaika bertso oiek onera; baiñan Zarautz'ko beste paper oietan egokiago zeudelakoan, onako auek ez dizkiogu paper orri kopiatu: 12/2: azienden jabe; 12/4: gaizki atera zate; 20/5: balia guriarek; 22/9: danok sartuko gera.

21'garren bertsoa, iñun ere etzegoan, Roke Etxabe'ren billoba orren buruan izan ezean, eta beraren aotik jaso degu.

Zarautz'ko kopia bakoitza zein'en eskutik jaso degun esan gabe, paper oietan arkitu ditugun aldaketarik nabarmenenak onako auek dira: 2/6: ziran ekiteko; 3/1: Bigarren suertia; 3/6: egonagarren 10; 8/6: zeuden sokatikan; 8/7: noiz azalduko ote zan; 10/4: ia zan pasatu; 13/1: Molla gañera giñan; 13/2: iru gizon iyo; 13/4: etzun asko baliyo; 13/5: gizonari egitia; 15/1: Kostan laga biarrian; 17/4: danontzat kaltia; 17/10: Ni naiz erregia; 18/1: Elkano'k bi ume orain.

Donostia'ko 1854'eko balearen bertsoetan lendabizikoa eta bertso auetan lendabizikoa, berdin asten dira. Nork nori kopiatu dion, esan bearrik ez dago noski.

* * *

Laugarren bertsoan Roke Etxabe ai-

tatzen da. Arek eman zion baleari «lenengo estokada». Aren billoba bat, Roke Eizagirre Etxabe, Zarautz'en bizi da. Arengana joan giñan, bale eta bertso aueri buruz zerbait argibide emango ote zigun. Berri-emale ugaria eta egokia arkitu genduan. Onela esan zigun:

«Bai, Roke Etxabe ori gure aitona zan. Gure ama, aren alabarik gazteena.

Aitona etzan arrantzalea. Obeto esateko, danetik egiten zuana; arrantzan ere bai. Emen bazan fabrika aundia, *textil*, eta antxe lana egiten zuan. Geiena emen urreko arrantza zan. Txibitan eta antxotan eta ola. Ez dakit, balea zan denboran, zenbat enbarkazio edo zer izango ziran. Bañan, ni gaztea nintzanean, iru ziran. Iru txalupa danak, arrantzakoak. Molle txiki ori besterik etzan-da. Batelak eta oiek bai; oiek izango ziran geiago.

Balea ikusi zutenean aterako ziran oiek. Seguru asko, fabrikara joateari lagata. Mariñel mariñelak etziran; ortik bizi ziranak.

Getaria'n bai, badira mariñelak, beste kolperik egiten ez dutenak bein ere. Baratza pixka bat San Anton'go mendian egiten zuten lenago. Estaduaren mendia da ori eta debalde eman lurra. Orain ori ere ez; galerazi-edo egin zieten. Orain ez du an iñork kilo bat patata ere

botatzen. Bañan len, legorrean ziranean, patata pixka bat egin, tomate pixka bat egin eta orrela. Bestela, kutxilloa zorroztu eta Elkano´ren azpian egon itxasoari begira.

Emengoak etziran orrelakoak. Orregatik esaten dute bertsoak: «kuadrilla ederra giñan eule ta errero». Erreroa, Ipolito Aramendi zan. Besteak, euleak izan bear zuten danak; *textil* ortan lana egiten zutenak. Gure aitona bai beintzat garai artan; gero ez baña.

Kapero, berriz, Jabier Kaperotxipi zan. Kaperotxipi pintorearen aitona uste det.¹

Balearekin zer gertatu zan esplikatzen erreza da. Itxasoan, oraintxe arte, zeozer zanean, konpañi egiten zan. Usuarioa ala zan. Aparte xamar izaten erreza da itxasoan. Neri ez dit iñork esan eta ez dakit nola dan señaleara. Bañan bazuten beren señaleara konpañi egiteko, ola eskuakin-edo. Eta besteak konformidadea emateko ere bai. Ta egun artan arrapatzen zana, erdibana.

Egin zuten ba lenbiziko junta ori eta an

1 Zarautz´ko Arkaitz-mendi lagun-artean, Roke Etxabe´ren argazki bat dago, eta azpian onela esaten da:

«Etxabe Zubiaurre´tar Roke Jauna. *Tripulantes de la trainera que tomaron parte en la captura de la ballena, cuyo esqueleto se conserva en el aquarium de San Sebastián: Javier Caperochipi (patrón), Francisco Echave, Juan Angel Sorreluz, Hipólito Aramendi (herrero).*

ibilliko ziran balearen ondoan:

- Emen dek!
- An dek!
- Orrera ziak!
- Onera zetorrek!

Ola izango zan itxuraz. Ta Getari'ko patroia Antton Aranberri, eta alakoren batean ari pufff! erten bitxoa. Arnasa artzera kanpora erteten omen da ba balea. Ta azpian nola ezer ez dagoan egiterik, orduan ba egin bear. Erten zaio txaluparen ondora eta, aIako pieza ikusi zuanean, sustatu, bildurtu Antton ori eta atzera egin. Orregatik esaten dute bertsoak: «an etzan korajerik arpoia sartzeko».

Andikan bereaIa, berriz, etorri zaie besteai, zarauztarrai, eta gure aiton ori an omen zegoan eta zas! bizkar-ezurretik sartu arpoia. Gero pIeitua eta an omen zegoan arpoi ura bere zarauztar selluarekin. Atera nai eta ezin kendu. Ainbesteraño sartua bizkar-ezurrean.

Alle-punta du izena molletikan aruntzaxeagoko punta orrek. Ortxe sartu arpoia, eta gero, arek indarra eta artu eta arras-tra baleak txalupak eta txalupak etziranak, danak.

Eta badira dardoak izena duten lantzak edo su-burnia bezelako luzeak. Iru bat metro luzeko zerak; akaso izango dira luzeagoak. Nik asko ez ditut ikusi, bañan badakit badirana.

Ta, arrimatzen ziranean, beti ere aiekin sasiatu biotza aldera edo al zuten tokira. Beti ere sartu egin bear kostadutik, eta kolpe oiek odola eman, eta orrela puxkanaka-puxkanaka odol-ustu.

Inguru guzia odoldu egin omen zan zearo; dana gorritu odolarekin. Bañan dardoekin-eta sangratu bear.

Eguardian-edo arpoia sartu eta illuntzean il, esaten zuten. Denbora bear ainbeste aundiko bitxoa ilko bazan. Ez da sastada batekin akabatzen dana.

Amabost oin buztan-pala omen zan. Ez dakit zenbat metro lodian. Luzean ere aditu izan det zenbat; asko beintzat.

Bale zar bat ura. Oiek, esaten dute, iltzera bazterrera etortzen dirala. Sasoiko balea danean-eta, zeñek geratu ura burni koxkor batekin? Etzait iruditzen neri. Arrai txiki batek ere indar ona du eta.

Alle-punta arpoia sartu zioten tokia, eta il zan tokia Mollarri. Mollarri aitzaren atzean.

Zarautz'ko kostan, aruntz aldeko aitz aiek dira Mollarri'ko aitzak. Eta andikan aruntzaxeago, Orio'ko barra.

Ta oriotarrak ere bertan, eta aiek etorri eta asko lagundu iltzen, dardoakin-eta. Getariarrak baño geiago bai. Getariarrak gero ere lagunduko zieten; ez dago dudikan. Etziran kolperik egin gabeak izango aiek ere. Bañan bein menderatu ta gero; seguratu zutenean.

Eta motrikuarrak ere baietz uste det, gutxi edo geiago. Aiek Motriku'tik Pasai'ra-edo txalupa berri baten billa edo ola omen zijoazen. Eta tartean ori billatu.

Eta gero, lenbiziko kontua atera omen zuten getariarrak, itxas txarra zegoala eta portu txarra zegoala Zarautz'en, balea sartzeko. Getari'ra bide ohea zegoala eta toki obeak, ainbeste aundiko puska sartu eta maniobratzeko. Kontxan utziko zutela, plaian, mollatik kanpora. Molla, barrua da; eta kontxa, kanpoa. An boiak, eta barkuak amarratzeko toki ori. Kontu orrekin arrankatu omen zan bale ori Getari'ra.

Bañan ara baño lenago igerri omen zioten zarauztarrak gauza piña edo jatorra etzijoala, eta kargu egiten-da asi eta berealaxe an indarra getariarrak, eta sartu indar guzian jendea eta berena zutela. Tropa ere bazegoan orduan

Getaria'n.

Patroia, Antton Aranberri ori ere, kabo-marra (cabo de mar) edo zerbait, autoridadea beintzat, eta an erregea zala oju egiñez. Eta alkateak ere, bera zala errege. Eta gero, ara sartu zutenean, Getari'ko molle zarrera, arrika ere eman omen zieten getariarrak zarauztarrak.

Eta gero juizioa preparatu zarauztarrak. Juiziora juzgadora deitu eta juzgadoko asunto orrekin danak kaltea. Usteldu bitartean balea. Pasatako gauza da ori. Gure etxean orrela konstatzen zan beintzat.

Gure aiton ori, indar aundiko gizona zan. Oso gizon fuertea. Altua zala uste nuan, bañan ezetz esan izan didate. Oso espalda zabalak bai.

Ura eulea, arrantzalea eta bañoak ere ematen zituana; bañeroa Zarautz'ko plaian. Ogei ta bi edo ez dakit zenbat atera zituala esaten zuan gure amonak. Aztu zaizkit neri zenbat itota atera zituan eta zenbat ito gabe.

Ta dantzaria ere bai; *número uno* aureskua ateratzen. Emen bakarrik ez; probintzi guzian, festetarako-eta joanda. Inñun festaldirik bazan, gerrikoa jantzi eta plazara. Batzutan dantzaurrea atera eta bestetan zelebrekerian. Oso gizon famatua zan.

Madrid'en ere bai, izaten zan. *Duque de Lécera*'k, bi illabeterako-ta eramaten omen zuan berekin.

Gero *Conde de Villapadierna*'k artu zuan. Emen nola da orain etxe-pilla aundia, Vista Alegre? Orko jardineroa izan zan. Gu or jaioak gera. Gure ama, Iau urte zituala-edo etorri omen zan orrera. Bañan, gure aitona zan denboran, etzan orren aundia Vista Alegre. Askoz txikiagoa zan; amartik bat edo oIako zeozer.

Bañan ango nagusiak, benetako aristokrazia, e? *Quiero y no puedo*'ko jendea ez. Bi anai eta arreba ziran, eta amar serbizioan. Sukaldean bi: koziñeroa eta pintxea. Garajeen, txoferra eta lakaioa. Orain lakaioa zer dan ez daki iñork. Morroia, bañan bere gradua bazuan ark ere. Ark zuan obligazioa kotxea garbitu, eta etxeko andreak edo nagusiak, kotxea bear zutenean, ari deitzen zioten. Ordubiak edo irurak ordua jarri eta ordurako garbitu eta pronto euki bear zuan kotxea.

Txoferra, berriz, botoi doraduakin eta eskudoz betetako uniformearekin; izugarri uniforme dotorea.

Ta, etxeko andrea edo nagusia etortzen ziranean, lakaioak erantzi txapela eta atea idiki. Exeri egiten ziranean, lakaioak artzen zuan

ordena nora joan bear zuten: prailetara edo parrrokira edo estaziora, eta illean bein Donosti'ra. Eta itxi atea eta txoferrari pasa ordena nora joan, eta an joaten ziran trankil asko.

Ainbeste aundiko ipurdi zabalak bai zaldiak. Bañan Donosti'ra joan-etorria egiteko gauza ez aiek; potoloegiak. Zaldiak ezagutu nituan nik etxean, automobilla baño lenago.

Ta an dagoala uste det orain ere inbernadorea, *Vista Alegre*'n. Elegantea denbora aieta-rako. Baita gaurko ere, gaur ere alako inbernadorerik egingo balitz.

Ta antxe gure aiton ori, loreak xextoka jarri, landareak zaitu, eskejeak egin eta olako lanak.

Gero gure aita jarri zan aitonaren tokian, eta antxe egiten genduan guk ere lanean, aitonak bezela. Jardinean ogei ta amar milla landare-ta aldatzen genituan urtean; eta etxe barrurako, palaziorako, inbernadorean milla landare eukitzen genituan. Etxe barruan ez da ba egiten landarerik. Illunegi-edo izaten da eta ez da bizi izaten. Zortzian bein, jai-goizean, lan ori izaten genduan: palaziora joan eta landareak, zeozer pasa zitzaienak, kendu eta eraman inbernadore-ra. An amabost bat egun-edo. Berriz mejoratzen ziranean, atzera eraman palaziora egun batzuk

egitera. Olaxe ibiltzen giñan.

Ta antxe, inbernadorean jarri zituan gure aiton orrek bertsoak, eta nik billatu nituan gañera.

Ni, ordurako lanean asteko-edo, zazpi urterekin edo ortxe. Mutil koxkorra nintzan beintzat. Orduko illa zan aitona. Eta inbernadorean olako mai bat eta beste zera xar bat; errege-sagarrak gorde eta edukitzeko kaja bat. Eta zoko-miran ibilliko nintzan ni, sagarrak al zegoan-edo, eta an paper bat, olakoxe kuadroan, doblatuta. Papera bastante aundia. Letra txiki-txikia. Letzen asi eta «Ara balearen bertsoak», eta etxera eraman nituan. Bertsoak erabat alde batetik etziran; batzuk buelta emanda. Urte askoan egon ziran gure etxean. Gure arreba batek ditu orain Donostia'n bertso oiek.

Makiña bat bider nik eskuz eskribitutako bertsoak. Paper artatik kopiatu. Makiña bat kopia bada or nun edo nun, ez dakit nun dira baña.

Bañan inprentakorik ez dezu billatuko. Inprentatu gabeak dira. Gure etxean esaten zan, aitonak etzuala nai izan inprentatzerik. Ni neu, inprentatu-edo egingo ote genituan ibilli nintzan, mutil gaztea nintzala. Bañan etzala aitonaren desioa eta ola geratu zan ori.

Bañan kantatu aitonak egiten zituan bai, ola maian eta kuadrillan jartzen ziranean. Eta ugariago bertso oiek baño. Berrogei ta amar bertsoa igual berri-berriak, danak balearenak. Paperean ogei ta bat dirala esan didate neri eta nik ogei ta bi uste nuan.

Balearenak besterik ez det nik ikasi arenik bein ere. Bañan balearen arrantzan ibillitako getariar oietako bat, gizon aundi bat omen zan eta ostegun santu egun batean borrokako desapioa egin omen zion gure aitonari.

- Egon adi pixka bat, arropa auek aldatu artean- gure aitonak.

Joan etxera eta etorri omen zan, eta plaiara borroka egitera. Eta joan dira getariar aleren batzuk, eta Zarautz'ko jendea ere juntatu omen zan eulia bezela. Bañan utzi ez egin omen zieten getariarrak-eta: etzala olako konturik bear eta aztuta zeudela kontu aiek.

Eta orduan iru bertso gure aitonak. Bitan-edo kantatu zizkidan neri Agustin Ibarguren izeneko batek, eta pena daukat aietxek eskatu gabea. Bañan Ibarguren ura il zala badira onezkero ogei ta amar urte; larri ibilli edo geiago.

Gure aitona, berriz, orain irurogei bat urte ilko zan. Ni aren besoetakoa naiz. Nik beatzi

illabeterekin oñez ikasi, eta amaika illabeterekin eskolara asi. Antxe egoten nintzan, baxterrean. Ezer asko ikasi ez, bañan beste umeakin batera ibilli. Aitonaren bizkarrean joaten nintzan».

* * *

Azkoitia'n jaio eta Zarautz'en bizi dan Patxi Larrañaga adiskideak, onela esan digu:

«Anton getariarra, Getari'ko arrantzale bat garai artan. Nunbait ere beti zeukan gizon braboaren fama, eta orregatik deitu zioten, balea ikusi zutenean, zarauztarrak Anton orri.

Bañan gero, kontatzen zutenez eta bertsoak esaten dutenez, balea urreratu zanean, Anton ori, balientetu bearrean, otxandu, kobardiatu. Eta, ura ausartu etzanean, zarauztarrak sartu arpoia.

Nik berrogei ta zortzi urte ditut Zarautz'en, eta lengo arrantzale zarrak ola esan oi zidaten neri, batek baño geiagok.

Astelen-arratsaldean jai egiten genduan, eta batengana edo bestearengana juntatu sagardotegian, eta nik kantatu egiten nituan bertso oiek, gizon bati ikasita, eta onela esaten zuten:

- Motellak, lotsagarri gaituk gu zarauztarrak. Au atzo etorri dek Azkoiti'tik,

eta onek balearen bertso danak bazekizkik. Onek kantatzen dituan bezela eta guk iñork alerik etzekiagu.

Eta gero gertatu zan, Zarautz'ko mollak oso sarrera txarra beti izan du, eta orduan ere bai; orain baño txarragoa izango zuan. Eta, gauza ori zala medio, pentsatu zuten Getari'ra eramatea bale ori, obeto manejatzeko. Sartu zuten Getari'ko mollan, eta getariarrak orduan berak jabetu ziran.

Eta, kantuak esaten duan bezela, alkatea an zan, eta alkateak bere zume ori eskuan. Jendeari errespeto sartzeko ibilliko zuan.

Eta Zarautz'ko alkateak errekan bazituala. Abendaño baserriko semea zan. Apelidua ez dakit. Urdaneta aldera goazela, aldapa asi baño lentxeago, erribera batean antxe dago baserri ori.

Baserritarra, orduan emen alkate zegoana. Garai artan Zarautz zer izango ba? Utsa. Argatik esaten zioten: Txara uts. Dana txara omen zan garai artan. Orain zuk emendik ikusten dituzun Santa Marina kalea eta auek danak, baratzak omen ziran; soroak danak.

Eta orain ere badaude eta alkate arek erreka alde artan zumeak. Orduan geiago izango

zan, itxura danez. Nunbait ijitoak joaten ziran aiek artzera, beren otarratxoak egiteko-ta, eta arek laga egiten. Orregatik esaten du: «pobriak serbitzeko irukitzen ditu». Ez Getari'ko alka-teak bezela, zumea artu eta jendea menpean edukitzeko. Zume oiek erregalo ematen zizkiola ijitoai; etzituala enpleatzen iñor dominatzeko.

Nik aditu nuanez, aiek ondo gertatu ziran, Getari'ra sartu zuten arte. Bañan gero nai zuten gazta bat balitz bezela. Gazta ori batek jan nai eta gazta partitzerik etzuan nai. Orixe gertatu zan. Ango okerra ori izan zan.

Ara eraman zutelako, berena zala balea, getariarrak. Aiek etzutela eskubiderik ezertarako, zarautzarrak. Eta orduan jo zuten juizio-ra, eta Zarautz'ek galdu Azpeitia'n, eta Iruña'n erabaki zan, eta tarte ortan balea usteldu.

